

Neskak eta mutilak bereizita eskolaratzean dituzten ikastetxeak: Nire diruaz ez, arren.

XXI mende honetan euskal eskola sisteman oraindik badira umeen heziketa “sexu bakoitzaren berezitasunen arabera” bideratzen dutenak, hau da, sexuaren arabera ikasleak bereizi egiten dituzten ikastetxeak. Balizko irizpide pedagogikoen babesean soilik neskentzako edo soilik mutilentzako ikastetxeak dira. Espainiar Estatuan dauden honelako 61 ikastetxeetatik, *Grupo Fomento de Centros de Enseñanza* izenekoa 35en jabe da; Opus Dei erakundearen gertuko erakundea da berau. Beste 10 ikastetxek, batez ere EAEn COAS deituriko elkartean daude, hau ere Opus Dei ingurukoa. Azken erakunde honek bere web orrian zera dio: “Bere sorreratik, ikastetxearen berezko izaeran dago heziketa bereizia, Haur Hezkuntzatik gorako mailetan”.

EAEn eta Nafarroan badira, gutxienez, era honetako 7 ikastetxe. Nafarroako hirurak (Miravalles Zizur Nagusian, eta Iruñako Miravalles-El Redin eta Irabia) aipaturiko *Grupo Fomento* taldean daude; Gipuzkoako biak (Donostiako Eskibel eta Irungo Erain) eta Bizkaiko beste biak (Ayalde Txorierri-Azuan, eta Munabe Loion) COASen daude. Ikastetxe hauekin lotura dute Haur Hezkuntzako Haurkabik Leioan, Umedik Bilbon edo Erein Txikik Irunen.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eta errespetua sustatzeko legeak eta planak egiten diren honetan, genero indarkeriak behin eta berriro mintzen gaituen honetan, aspaldiko formula zaharkituak, neskak eta mutilak elkarrekin heztea eta ikastea galarazten dutenak, aurkezten dizkigute. Ezin dugu hau onartu, mundu errealetik at dagoen aipatu erakunde horrek abortuaren, dibortzioaren edota antisorgailuen inguruan botatzen dituen mezuak onartzen ez ditugun bezala. EAEn 2.100 eta Nafarroan ia 1.000 dira heziketa bereizi hau jasotzen duten ikasleak; honek larriki egiten du talka euskal hezkuntza sistema definitzen duen oinarrizko –eta legezko- zutabe batekin: hezkidetza.

Ikastetxe hauek ez dira existitzen familia batzuek hautatzen dituztelako bakarrik. Sortu eta garatu egiten dira Opus Dei inguruko taldeen bultzadaz, **baina irauten dute administrazioaren babes ekonomikoari esker**. Diru-laguntza publikoaz baliatuz, hitzarmenaren bidez, eskola plazaren kostuaren % 70 inguru betetzen da. Honela, EAEn 4 ikastetxe inplikatuak, soilik derrigorrezko mailei dagokienean, 6.535.791 € jasoko dute ikasturte honetan.

Egoera hau ez da onargarria; 2006an LOEren ezarketarekin ez zegoen oso argi, eta ez zen ezer egin, baina, **egun, administrazioak tresna legalak ditu** ikastetxe hauek diruz ez hornitzeko. Gaur autonomia erkidegoen hezkuntza administrazioak exijitu dezake irakaskuntza mistoaren eredia diru publikoaren esleipen-hitzarmena sinatzeko, aipatu legearen 84.3 artikuluan zehazten den moduan. Argi eta garbi: legeak dioena exijitzea badago.

Gaztela-Mantxako kasu baten inguruan Auzitegi Gorenaren 2008ko ekainaren ebazpen batean adierazten da legala dela ikastetxe batek sexuaren araberako irakaskuntza bereizketa egitea, neskak eta mutilak bereiziz, baina era berean ebatzi zuen Autonomia Erkidego batek horregatik diru publikoa ukatzea ere legala dela. Ebazpen horrek ondorioztatzen zuen: “ikastetxe hitzartuen kasuan, irakaskuntza mistoa eman behar den erabakitzea, ikasleen onarpenarekin lotzen da, eta, beraz, ikastetxe horiek diruz hornitzen dituen administrazioaren eskumena da”.

Ebazpen horren ildotik, Kantabriako Gobernuak (PSOE eta PRC) mutilak bakarrik eskolaratzen zituen ikastetxe bati ez zion hitzarmena berritu -eta ondorioz, diru-laguntza

publikoa galdu zuen-, eta gainera ukatu zion hitzarmena, arrazoi berengatik, lehen aldiz eskatzen zuen beste ikastetxe bati. Estatu osoko ezker politiko eta sindikalak erabakia txalotu zuen, bide horretatik joateko deia eginez; hala adierazi zuten Cabrera ministro ohiak, Soledad Cabezón Berdintasun Politiken idazkaria, *Juventudes Socialistas*, STE, UGT eta CCOO sindikatuak... Euskal Herrian STEE-EILASek antzeko neurriak eskatu zizkien Nafarroako eta EAeko gobernuei.

Eskaera horiei erantzun desberdinak eman zaizkie. Autonomia erkidego batzuetan (PPkoak, nagusiki) lur publikoa ere ematen dute honelako ikastetxeak eraikitzeko, Madrilan adibidez. Beste batzuetan, Andaluzian kasu, Kantabriaren urratsak jarraitzen ari dira; hainbatetan (Katalunia) tarteko bideak bilatzen ari dira, ikastetxe berriei diru-laguntzak ukatzen.

Euskal Herrian administrazioen geldotasuna nagusi izan da orain arte. Nafarroan laguntza berriak ez direla esleituko esan digute, eta EAEn, lehen esan den bezala, aurreko Hezkuntza Sailaren arduradunek ez zioten jaramonik egin gaiari eta jarraitu zuten ikastetxe hauen hitzarmena bideratzen (ikastetxe pribatuen % 99k lortzen du hitzarmena). Sozialistak gobernura heltzearekin gauzak ez dira aldatu, nahiz eta beste erkidego batzuetan berauek izan ikastetxe hauentzako diru-laguntzen aurka jo dutenak. Isabel Celaák sinatutako 2009ko irailaren 22ko Aginduak ez dakar aldaketarik kontu honetan, eta, ondorioz, ikastetxe hauek diru publikoa jasotzen jarraituko dute, gutxienez 2009-2010 eta 2010-2011 ikasturteetan. Dirudienez, hitzetatik ekintzetara bidea egiteko asmorik ez dago eta besterik gabe onartzen da itundutako ikastetxe guztiak gizartearekiko duten konpromiso maila berean daudela eta horregatik diru publikoa jasotzen dutela.

STEE-EILASen ustez, euskal hezkuntza sistemaren eragile gehienek eta euskal gizarteak berak ongi ulertzen dute eskaera hau zuzena dela. Gure hezkuntza sisteman heziketa berezia onartezina bada, are gutxiago izango da guztion diruarekin finantzatzea. Diru publikoaren euro bat ere honelako ikastetxeentzat. Hezkuntza Saila deitzen dugu norabide horretan aurrera egiteko; urratsak ematen badira, gure babesa izango dute. Era berean, konpromisoa hartzen dugu, erabaki horien balizko ondorio laboralak gertatuz gero, konponbideak bilatzen laguntzeko.